

**Irailaren 7an, astelehenean, Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, elkarretaratzeak egingo ditu berriro, hiru hiriburutan eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 70 herritan, pixkanaka herri gehiago atxikiko zaielarik.**

Hilabete hauetan, eta alarma-egoera altxatu ondoren, mobilizatu egin gara, eta 29 hilabete daramatzagu; gure osasuna bermatzea eta gure mobilizazioetan inork arriskurik txikiena ez izatea izan dugu lehentasun. Bizitza asko dugu aurretik eta gauza asko aldatu behar dira hurrengo belaunaldiei gizarte justu, solidario, iraunkor eta osasuntsua uzteko.

Orain arte egin dugun bezala zaintzen jarraituko dugu, eta, aldi berean, kalean jarraituko dugu gure aldarrikapenak defendatzen; izan ere, lortu dugun apurra eta oraindik lortzeko dagoena borrokatuz irabaziko dugu.

Guretzat, pandemiak, langile, emakume eta gazteentzat bezala, aurpegi tragiko bikoitza du, gaixotasunaren aurpegia eta pobrezia hori gero eta aberatsago bihurtzen direnen proportzio berean hedatzen da.

Gaur egun, Estatuko, EAEko eta Nafarroako gobernuek plangintzak eta aurrekontuak egiten ari dira, eta pentsiodunen mugimenduaren ahotsa eta aldarrikapenak entzun eta aintzat har ditzatela eskatzen diegu.

Mendekotasuna artatzeko sistema, mendekotasuna duten adinekoen biltegi izateari utz diezaion aldarrikatzen jarraituko dugu, eta gutxi batzuek gure eskubide eta premiekin negoziatzea egin dezaten, salatu egingo dugu. Gaur, Munduko Osasun Erakundeak pandemia deklaratu eta 6 hilabetera, egoitza asko oraindik ez da leku segurua, ez baitira horretarako beharrezko neurriak eta baliabideak hartu.

Krisi sanitarioak eta krisi ekonomikoak soldatak eta diru-sarrerak murrizten ari dira, eta enplegua prekarizatu eta pentsioak murrizten dituzten lan- eta pentsio-erreformek indarrean jarraitzen dute; Lanbidearteko Gutxieneko Soldatara iristen ez diren langileak eta 1080 eurotik oso urrun dauden pentsiodunek ezin dute hilabete amaierara iritsi, ezta bizi-baldintza duinak lortu ere. Pentsioak dituzten emakumeak, alarguntasunarena kasu, egoera hori bereziki gordinki pairatzen ari dira, eta, gainera, aitortu eta ordaindu gabeko zainketa lana ugaritu egin zaie.

Banku Zentralek zirkulazioan jarri dituzten bilioika euroak aipatzen dituzte gobernuek, baina osasun-sistema eta sistema sozio-sanitarioa ez dira asistentziaren kalitatea hobetzen ari, ezta soldatak eta diru-sarrerak pandemiaren aurreko mailetara iristen ere, eta pentsioak ez dira hobetzen.

Irailan Toledoko Ituna bilduko da berriro, eta handik gutxira Bruselako akordioak eta EAEko eta Nafarroako aurrekontuak berretsiko dituzte.

Azken bi urteetan entzun ditugun promesa eta ipuin berberak entzungo ditugu berriz ere; baina ez dugu beste promesarik nahi, pentsioen eta pentsio publiko duinen sistema publikoa bermatuko duten egitateak nahi ditugu; gure mobilizazioetan behin eta berriz eskatu ditugun aldarrikapenak egia bihur daitezen nahi dugu, eta osasun-sistema publikoa eta zerbitzuak nabarmen hobetuz bizitzea merezi duen bizitzarako eta osasunerako dugun eskubidea bermatzea nahi dugu.

Horregatik, datorren astelehenean, hilak 7, arrazoi soberan ditugu Euskal Herriko plazak eta herriak betetzeko eta horrela jarraituko dugu gure helburuak lortu arte.

Gobernatzen duenak gobernatu, pentsio publikoak defendatu

Mobilizazioa da gure bermea